



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2023ko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familiek 2023a nahiko ezkor amaitu dute
- Estatuko eta EB-27ko familien artean, ezegonkortasuna mantendu da
- Eraitza eta bilakaera Europako herrialde nagusietakoen antzekoak dira




1 EAEko familiek 2023a nahiko ezkor amaitu dute

2023ko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak zertxobait egin du gora (+4), baina oraindik ere balio negatibotan (-9) dago. Hala, urtean zehar, ez dira desagertu ezkortasuna bultzatu duten argudioak eta urteko batez besteko balioa negatiboa (-9) izan da. Dena den, azkenean, ez da 2022koa baino (-11) ezkorragoa izan.

EAEko familien konfiantza 2022ko bigarren hiruhilekoan hasi zen okertzen. Orduko testuinguruan, inflazio-espiralak eragindako ezegonkortzea (eta horren ondorioz interesa-tasak igo izana) eta ezegonkortasun geopolitikoak (Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta horrek energia-merkatuetan inpaktua izan zuen) ziren nagusi. Gerora, bi faktore horiek familien konfiantzan duten inpaktua arindu egin da (inflazioa kontrolatu egin da eta gerra oraindik konpondu gabe dagoen arren, energia-merkatu eta -prezioetan dituen ondorioak txikiagoak dira).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familien artean, ezegonkortasuna mantendu da

Laugarren hiruhilekoko datuei erreparatuta, Espainiako (-20) eta EB 27ko (-18) familien konfiantza egonkortu egin dela ikusten da. Hala, EAEko familietakoa baino (-9) zertxobait negatiboagoa da, baina ia ez da izan aldaketa esanguratsurik aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

2023ko batez besteko datua (-9, -19 eta -19, EAE, Estatua eta EB-27) 2022koa baino zertxobait positiboagoa da (-11, -26 eta -23). Hori guztia kontuan izanda, eta 2023ko amaierako datuak falta direnean (ekonomia handietako batzuetan, Alemanian edo Frantzian, adibidez, hazkundera aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izango da), 2024rako aurreikuspenak beherezko joerarekin berrikusi dira, eta joera hobea 2025erako atzeratu da. Mezu horiek² (hazkunde-igurikimen txikiagoak, beherezko aurreikuspenak eta abar) hedapen handia izaten dute eta baliteke familien igurikimenean eragina izatea.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatua eta EB-27




1. EB-27ko eta Estatuko 2023ko IV. hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urria-azaroa batezbestekoa
2. Batzuetan, zuzenketak hamarren gutxi batzuetakoak izaten dira, baina horiek "lerroburu adierazgarriak" sortzen dituzte.

3 | Eraitza eta bilakaera Europako herrialde nagusietako antzekoak dira

Hautatutako Europako herrialdeetako datuek eszeptizismoa finkatu dela baieztatu dute eta ia ez dute aldaketa nabarmenik izan familien konfiantzaren balorazioan. Hala, 2023ko laugarren hiruhilekoan, Frantziako (-15), Alemaniako (-16), Danimarkako (-6) eta Herbehereetako (-16) familien konfiantza-indizeak ia ez du aldaketarik izan aurreko emaitzarekin alderatuta.


2023ko balantze orokorraren arabera, balio negatibotan dago Frantziako (-17), Alemaniako (-15), Herbehereetako (-18) eta Danimarkako (-8) familien konfiantza, baina 2022an baino zertxobait gutxiago (-18, -20, -25 eta -14, hurrenez hurren): horrek agerian uzten du kasu bakoitzean lortutako inflazioaren jaitzierak izandako inpaktua (eragin handia du familien konfiantzan). Hain zuzen ere horrek justifikatu zuen erreferentziako tasak (EBZ) irailaren 14ra arte % 4,5era igo izana (2001etik izandako maila altuena). Oraingoz (abendua 14), aldaketarik gabe jarraitzen du.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. IV. hiruhilekoko datua behin-behinekoa da EB-27 eta Europako gainontzeko herrialdeetarako. Urria-azaroa batezbestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren joeraren inguruan, ezkortasuna da nagusi
 - langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, ia positiboak dira
 - familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak suspertu egin dira
 - eta aurrezteko igurikimenak ia positiboak dira
 - EAEko familien konfiantza hobetu egin da elementu guztietan
- 

4 | ekonomia orokorraren joeraren inguruan, ezkortasuna da nagusi

Hobekuntza txikia (+4 puntu) gertatu arren, EAEko familiek hurrengo hamabi hilabeteotan egoera ekonomiko orokorrak izango duen bilakaeraren inguruan dituzten igurikimenak ezkorrak dira (-21). Horrek, egoera ekonomiko orokorra zerbait edo askoz okerragoa izango dela uste duten familien nagusitasuna erakusten du (% 47,7, ehuneko -2,6 puntu), ez dena konpentsatzen egungo egoeraren antzekoa (+% 36,5, ehuneko +0,9 puntu) edo, are gehiago, zerbait edo askoz hobea (% 15,8, ehuneko +1,7 puntu) izango dela uste duten familien multzoekin.

Ekonomia orokorraren inguruan familiek adierazitako igurikimen-indizearen batez besteko datua honako hau izan da 2020an, 2021ean, 2022an eta 2023an: -33, -12, -23, -21. Igurikimen horiek (hurrengo 12 hilabeteotan ustez gertatuko denaren ingurukoak) Euskadiko BPGak izandako igoera hauekin lotuta egon dira: % 6,0, % 5,4 eta % 1,7-% 1,8 2021ean, 2022an eta 2023an (Eustat). Aurreikuspenen arabera, datu hori 2024an % 2,1ekoa izango da (Eusko Jaurlaritza). Hala, jarduera ekonomikoaren bilakaeraren inguruan familiek dituzten igurikimenak azkenean gertatzen dena baino zuhurragoak eta eszeptikoagoak dira.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, ia positiboak dira

Langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimenetan neutraltasuna da nagusi EAEko familien artean. Indize hori zertxobait suspertu da laugarren hiruhilekoan (-4, +2 puntu) eta urteko balantze orokorra positiboa izatetik oso gertu (-4) dago.

EAEko familien ustez, hurrengo hamabi hilabeteotan, Euskadiko lan-merkatuaren bilakaera orain arte izandakoaren antzekoa izango da. Baina igurikimen horiei kontrajarrita (pertsonek inguruan ikusten duten horretan oinarrituta daude), nabarmendu beharreko bi emaitza daude (urtarrila-azaroko batezbestekoa). Alde batetik, EAEk Gizarte Segurantzako 997.275 afiliazio ditu 2023an (+1,6, 2022ko datuekin alderatuta), eta zifra horrek maximo historikoa erakusten du. Eta, bestalde, langabezia (erregistratutako langabezia) 108.582 pertsonakoa da, beheranzko joerari eutsiz (2022ko datuekin alderatuta, -% 4,3) eta, seguru asko, urtearen amaieran jaitsi egingo da.

Langabeziarekiko igurikimenak. EAE




6 | familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak suspertu egin dira

EAEko familiek etxeko ekonomiaren inguruan dituzten igurikimenak dezente hobetu dira (+7 puntu), baina apur bat negatiboak izaten jarraitzen dute (-9): urteko batez besteko datua (-12) ez da 2022an (-17) bezain negatiboa, ekitaldi horretan prezioen bilakaerari buruzko ezkortasuna zen nagusi (-48), eta adierazle hori nabarmen hobetu da 2023an (-6).

Laugarren hiruhilekoan gora egin du hobekuntza aurreikusten duten familien taldeak (% 12,0; +4,2 puntu), okerrera egingo dutela iragartzen dutenen murrizketaren aurrean (% 25,4; -5,7 puntu).

Etxeko ekonomiaren gaineko igurikimenen bilakaera egoera inflazionistaren ondorioek baldintzatzen dute, zeinak eragina baitu gastu-erabakietan (prezio handiagoei aurre egitea), inbertsioan (finantzaketaren kostua, interes-tasen igoera) eta aurrezkian (ordainsari hobea). Oro har, inflazioa (KPI orokorraren hazkundera) buelta ematen ari dela egiaztatzea -maiatzetik % 4tik beherako tasetan, EAEn- faktore garrantzitsua da familiek etxeko ekonomiarekiko duten konfiantza hobetzeko.

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak. EAE




7 eta aurrezteko igurikimenak ia positiboak dira

EAEko familiek aurrezteko igurikimena hobetu dute (+3 puntu), eta ondoen baloratutako konfiantzaren adierazle partziala izan da, bai laugarren hiruhilekoan (-1), bai urteko balantzean (-2, lau hiruhilekoen batez bestekoa), ia positiboa baita.

Laugarren hiruhilekoan lortutako emaitza hurrengo hamabi hilabeteetan aurreztuko duten familien multzoaren gorakadari dagokio (% 54,0; ehuneko +5,6 puntu); aldiz, aurreztuko ez dutela uste dutenen taldeak behera egin du (% 46,0; ehuneko -5,6 puntu) -ziurrenik edo seguru, bi kasuetan-. Familien aurrezteko igurikimenen hobekuntza hori duela gutxiko esperientziarekin oso lotuta egongo litzateke; izan ere, azken hamabi hilabeteetan aurreztu duten familien ehunekoak gora egin du (% 70,0; ehuneko +3,7 puntu), eta jaitsi egin da batere aurreztu ez duen taldea (% 30,0; -3,7 puntu).

Familiak zuhurrak dira igurikimenei dagokienez, aurreztuko duela uste duen taldea azkenean aurrezten duena baino txikiagoa izan ohi baita: horrek erakusten du aurrezteko talantearen prebalentzia eta, halaber, gastu-erabakietan (*gastuaren arrazionaltasun-errentagarritasun handiagoa*) prezio-maila handiagoa barneratzea (*eta deskontu-estrategiak, sustapenak eta abar erabiltzea*).



8 EAEko familien konfiantza hobetu egin da elementu guztietan

Familien konfiantzarekin lotutako lau elementuek izan dute hobekuntza (neurri batean edo bestean) eta, horiei esker, konfiantza suspertu egin da (-9, +4 puntu). Hala eta guztiz ere, ekonomia orokorraren bilakaerari lotutako igurikimenak oraindik ere negatiboak dira (-21, +4 puntu) eta horixe da konfiantzarekin lotutako elementurik okerrena. Bestalde, langabeziaren bilakaerari lotutako igurikimeneak joera positiboa (-4) izan dute eta, aurrezkiaren igurikimen-indizea (-1) bezalaxe, ia positiboa da. Bi indize partzial horien kasuan bezalaxe, hobekuntza handiena (+7 puntu) familiaren ekonomiarekin lotutako igurikimenean (-9) da.

Orotara, negatiboa da 2023an EAEko familien konfiantza-indizea (-9) eta 2019koa baino okerragoa izan da (-2). Hala ere, 2021 (-6) eta 2022 (-11) arteko tarteko balioan geratu da (azken urte horretan kontsolidatu zen inflazio-joera). Hala, 2023ko laugarren hiruhilekoan berreskuratu egin da galtutako konfiantza horren zati bat eta ekitaldia emaitza makroekonomiko positiboekin itxiko da eta, batez ere, enpleguaren maximo historikotan. 2024rako erronka da familien konfiantzaren hobekuntza sendotzea. Izan ere, bultzada ekonomikoa mantentzearen eta inflazio-joera alderantzikatzearen mende dago (% 4 baino txikiagoa izango da).


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	2023	IH-23	IIH-23	IIIH-23	IVH-23	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-7	-13	-9	4	▲
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-19	-16	-25	-21	4	▲
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-10	-11	-16	-9	7	▲
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-4	-6	0	-6	-4	2	▶
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-2	-2	1	-4	-1	3	▲

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioak gutxiago igoko direla aurreikusten dute EAEko familiek
- erosteko unearen balorazioa hobetu da, baina oraindik negatiboa da
- erosketa handiei buruzko igurikimenak mantendu egin dira
- etxebizitza erosteko asmoa ahuldu egin da; aldiz, autoa erostekoa, mantendu
- kontsumo handiarekin lotutako igurikimenek zuhurtzia barruan jarraitzen dute




9 | prezioak gutxiago igoko direla aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiek prezioen gorakadarekin¹ lotutako igurikimenak (-7) mantendu dituzte. Gainera, urteko balantzea (-6) aurreko urteetan lortutakoetatik nabarmen alden du da dagoeneko (-20, -22, -41 eta -48, 2019an, 2020an, 2021ean eta 2022an). Hitz gutxitan esanda, familien igurikimenek prezio-atalase handiagoa barneratu dute, baina goranzko joera hori puntu altuenera iritsi dela uste da. Hain zuzen ere, eta modu egonkorrean, 2023ko lau hiruhilekoetan familien heren batek uste du prezioak orain arte bezala (% 36) edo gutxiago (% 29) igoko direla.

Igurikimen horiek bat datoz prezioen hazkundea mantsotu (KPI orokorra eta azpikoa², urte arteko tasan) egin dela diotenekin; bai EAEn (+% 3,4 eta +% 4,8), bai Estatuan (+% 3,2 eta +% 4,5). Hala, 2024an % 2ko igurikimenera (KPI orokorra) iristea sinesgarria da. Euroguneko beste herrialde batzuetan izandako egonkortzea (Alemanian edo Frantzian, adibidez, azaroko KPI orokorraren urte arteko igoerak +% 2,3koak eta +% 3,8koak izan dira) eta jarduera ekonomikoaren garapena gehiegi “hozteko” arriskua direla eta, EBZk erreferentziatzko interes-tasak mantendu egin ditu, eta ez du diruaren prezioa garestitu (inflazio-espiralari aurre egiteko erabilitako estrategia izan zen).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiaketa produktu energetikoak kenduta

10 | erosteko unearen balorazioa hobetu da, baina oraindik negatiboa da


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Inflazio-joeraren metatutako eraginak (2021eko udazkena) familiako ekonomiaren egoera eta horri lotutako igurikimenak okertuko zituen (baina zertxobait suspertu dira). Testuinguru horren baitan, erosteko unearen inguruko balorazioa oraindik ere negatiboa da (-23), baina aurreko hiru hilekoarekin alderatuta, nabarmen hobetu da (+6 puntu).

Erosteko unearen balorazioari dagokionez neutraltasuna agertu duten familien taldea handitu da (% 61,5; +3,1 puntu); aldiz, pixka bat igo da une ona dela uste dutenen taldea (% 7,9, +1,5 puntu), eta, batez ere, gutxitu egin da une txarra dela uste dutenena (% 30,6; -4,6 puntu).

Erosteko unearen balorazioarekiko neutraltasun hori "beharrrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketari (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago. Hala, familien heren batek uste du une txarra dela (zifra hori azken urtean ez dutela aurreztu erantzun dutenenen antzekoa da).

Erosteko unearen balioztapena¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez


11 | erosketa handiei buruzko igurikimenak mantendu egin dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien artean, erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizea berdin mantendu da urte osoan zehar (-7, -5, -8 eta -7, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean). Laugarren hiruhilekoko emaitza hauek eragin dute: zerbait edo askoz ere txikiagoak izango diren erosketak aurrekusi dituztenen taldeak izandako beherakadak (% 26,6, -3,0 puntu), erosketak berberak izango direla uste dutenen gorakadak (% 56,3, +2,8 puntu) eta zertxobait edo askoz ere handiagoak izango direla uste dutenen taldearen egonkortasunak (% 17,2; +0,2 puntu).

Indizearen urteko balioa (-7) hobetu egin da 2022ko datuekin alderatuta (-11), baina oraindik ere ez da iritsi 2019ko edo 2021eko (0 eta -2, pandemia edo inflazio aurrekoa) mailetara. Gainera, 2022 arte gastu-talde horretan izandako susperraldia (+% 2,6) gastu osoarena baino txikiagoa izan zen (+% 8,1, Familiako Gastuaren Estatistika, Eustat). Behin-behineko datuen arabera, 2023an familien gastuak % 2 baino gutxiagoko urte arteko igoera izan du (Hiru Hilez Behingo Kontuak, Eustat): zifra esanguratsua da eta agerian uzten du EAEko familien gastu-oinarria sendotu egin dela.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹




¹ Azken 12 hilabeteetako datuak.

12 | etxebizitza erosteko asmoa ahuldu egin da; aldiz, autoa erostekoa, mantendu

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, EAEko familien % 0,5ek baino gutxiagok adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan etxebizitza (ia ziur) erosiko duela. Hala, joera ahuldu egin dela dirudi. Gainera, urtarriletik urrira salerosketako 17.985 eragiketa¹ egin dira eta datu hori 2016tik izandako hirugarren zifra onena litzateke, baina 2022koaren azpitik (-% 11,4) dago. Joera hori hoztu dutenak hauek dira: hipoteka-kostuaren gorakada, eskaintza eskasia izatea eta zahartze-faktorea (familiak sortzea).



Hurrengo hamabi hilabeteotan ibilgailua erosteko asmoa izango luketen familien taldea oraindik ere % 4koa da. Ibilgailu berrien matrikulazio-zifrak² hobetu egin dira urte arteko tasari dagokionez (+% 11,6 urtarriletik azarora bitarte), baina bolumena (22.053 unitate) 2016 eta 2019 artean izandakoetatik oso aldentuta dago (urtean 35.000 unitate baino gehiago).



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.




13 | kontsumo handiarekin lotutako igurikimenek zuhurtzia barruan jarraitzen dute

Laugarren hiruhilekoko emaitzek hobetu egin dituzte 2023ko EAeko familien kontsumo handiko eta inbertsioko igurikimenei lotutako hiru indizeen emaitza orokorrak. Hala eta guztiz ere:

- Prezioen bilakaeraren inguruan EAeko familien igurikimenek oraindik ere balio negatibotan (-6) jarraitzen dute, baina inflazio-joera amaitzear dagoela aurreikusi dute. Hori guztia beheranzko inflazio-joerarekin lerrotatuta egongo litzateke (EAeko KPI orokorra, azaroan +% 3,4).
- Erosketa handiak egiteko oraingo unearen balorazioak oso balio negatiboetan (-27) jarraitzen du eta hiru indizeetan okerreana da. Horrek agerian utziko luke prezioen gorakadak (2021ean hasi zena) izandako eragina, gastu-taldeen artean lehentasunak finkatzera bultzatzen baitu.
- Zertxobait (-7) hobetu dira erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimenak (2019tik nahiko gorabeheratsua izan da) eta, datu horretan oinarrituta, joeraren bilakaera nahiko laua izango dela iragar daiteke (gaur egungoen antzekoak diren bolumenetan).
- Etxebizitza erostearekin lotutako asmoa ahuldu egin da (familien % 0,6k bakarrik aipatu dute 2023an eta, aldiz, 2022ko urteko batezbestekoa % 1,2koa izan zen), eta autoa erosteko asmoa suspertu egin den arren, erritmoa galdu du (familien % 6,5ek eta % 4,3k aipatu dute asmo hori 2022an eta 2023an).

EAeko familien kontsumo handiarekin eta inbertsioarekin lotutako igurikimenak ziurgabetasun-egoerara egokitu dira (azken ia lau urteotan), eta gastuarekin lotutako lehentasuna eta zuhurtzia nagusitu dira.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	2023	I H-23	II H-23	III H-23	IV H-23	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	-4	-7	-7	0	
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-27	-32	-25	-29	-23	6	
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-7	-7	-5	-8	-7	1	

↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	2023	I H-23	II H-23	III H-23	IV H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-7	-13	-9	▲
• Estatua*	-6	-23	-13	-26	-19	-23	-19	-16	-20	▼
• EB*	-6	-15	-8	-23	-19	-21	-18	-17	-18	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-17	-21	-17	-15	-15	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-15	-17	-13	-15	-16	▶
○ Danimarka*	4	1	5	-14	-8	-13	-7	-6	-6	▶
○ Herbehereak*	-7	-13	-4	-25	-18	-20	-19	-18	-16	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE										
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-19	-16	-25	-21	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-10	-11	-16	-9	▲
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-4	-6	0	-6	-4	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-2	-2	1	-4	-1	▲
Beste indize batzuk. EAE										
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	-4	-7	-7	▶
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-27	-32	-25	-29	-23	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-7	-7	-5	-8	-7	▶
Erosketa handiak. EAE.**										
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	0,6	0,8	1,1	0,4	0,2	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	4,3	4,5	4,8	3,9	4,0	▶

↔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkie.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	2023	I H-23	II H-23	III H-23	IV H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-7	-13	-9	▲
Adin-taldeak										
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-10	-11	-11	-11	-7	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-9	-9	-7	-14	-7	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-6	-7	2	-10	-8	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-12	-10	-8	-15	-15	▶
Lan egoera										
• Landuna (soldatapekoa/norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-7	-9	-5	-11	-5	▲
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-23	-23	-20	-25	-23	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-9	-7	-5	-13	-11	▶
Familia-unitatearen hileko errenta										
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-20	-19	-22	-27	-13	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-9	-5	-5	-11	-15	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-1	-2	4	-3	-1	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 22	I H – 23	II H – 23	III H – 23	IV H – 23 _b	(azkena)
BPG	3,4	2,3	1,5	1,6	--	III hiruhilekoa
Familien kontsumoa	5,1	1,7	1,3	1,5	--	III hiruhilekoa
Afiliazioa	1,7	-0,3	1,2	-0,8	1,7	urria-azaroa
Erregistratutako langabezia	-1,0	0,3	-4,1	0,3	1,6	urria-azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,2	2,9	1,1	-0,6	--	III hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-14,3	24,0	-19,5	-0,3	--	III hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	22,8	-3,0	9,6	-18,8	25,9	urria-azaroa

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketan estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleak:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2023ko azaroaren 13tik 24ra (2023ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm